



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

OHIKO OSOKO BILKURA

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

EGUNA: 2018ko urriaren 4a.

ALKATEA: Asier Rodriguez Etxeberria

BERTARATUAK:

- ✓ Aitor Arruabarrena Etxeberria
- ✓ Haizea Moreno Torres
- ✓ Migel Mari Jauregi Apalategi
- ✓ Amaia Auzmendi Asurabarrena
- ✓ Iker Contreras Vidal
- ✓ Juan Jose Maiza Ariztimuño
- ✓ Oihana Mendizabal Asurabarrena

Ez da azaldu Karmele Aierbe Muxika.

IDAZKARIA: Maria Pilar Garmendia Miguel.

BATZARRA: Ohikoa. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 19:00tan.

Bukaera: 19:25tan.

LEHENENGO PUNTUA:

AURREKO BATZARRAREI DAGOZKIEN AKTEI OHARPEN AURKEZPENA.

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiriak banatu zaizkie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez ditzaten:

- 2018ko uztailak 5eko akta. (Ohiko bilkura)
- 2018ko irailak 25eko akta (Ezohiko bilkura)

Amaia Auzmendi Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du 2018ko irailaren 25eko aktan jarrita dagoela ATAUN HERRIGINTZAKO 3 zinegotziak kontrako botoa eman ziotela Etxez Etxeko laguntza zerbitzuaren erregelamenduari, baina aldeko botoa eman zutela.

Idazkariak hitza hartuta adierazi du zuzenduko dela.

BIGARREN PUNTUA:

ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Azaroaren 28ko 2568/1986, Erret Dekretuaren (ROF) 42. artikuluan xedatutakoarekin bat, Korporazio honen azken ohiko batzarretik gaurdaino eman diren Alkatezaren Ebazpenen berri ematen da, hain zuzen ere 2018/257tik 2018/351 dekretura doazenak, biak barne, honetaz guztiaz Udalbatza jakinean geratzen delarik.



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

2018/257	2018.06.29	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Fermin Irastorza)
2018/258	2018.07.02	Ordainketa ezberdinak (Ane Tapia eta Iker Lojo)
2018/259	2018.07.03	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Maria Begoña Mazaira Dacoba)
2018/260	2018.07.03	Etxe Alai eraikineko estalkipeko solairuan berriztatze lanak burutzeko obra baimena
2018/261	2018.07.03	NED Suministro GLP, S.A.U. Udalerria hornitutako energiaren fakturazioari dagokion tasaren likidazioa 1. hiru hilabetea - 2018
2018/262	2018.07.03	Nortegas energia distribución S.A.U. 2018ko 1. hiru hilabetea bidesariari dagokion kitapena
2018/263	2018.07.03	LDL AGURTZANE G
2018/264	2018.07.03	LDL SOBAI
2018/265	2018.07.03	LDL SOBAI
2018/266	2018.07.03	LDL EL GHETTABI
2018/267	2018.07.03	LDL EL GHETTABI
2018/268	2018.07.03	LDL RAMIRO
2018/269	2018.07.03	LDL AGUSTIN G
2018/270	2018.07.03	LDL AGUSTIN G
2018/271	2018.07.03	LDL JAVIER IGLESIAS
2018/272	2018.07.03	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/273	2018.07.03	LDL LAGUNTZA ESKOLARRA
2018/274	2018.07.03	LDL ZEBERIO-LUKAS IHARDUERA
2018/275	2018.07.05	Ordainketa ezberdinak (Garazi Etxeberria eta Kutxa Fundazioa)
2018/276	2018.07.05	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Santiago Barandiaran Echeverria)
2018/277	2018.07.09	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Saif Abdulkarim Alhuttaitawi)
2018/278	2018.07.09	Goierriko Goiztiri AEKri uztailearen 19an Barnetegi Ibiltaria dela eta gaua pastzeko lekua eta dutxak erabiltzeko baimena
2018/279	2018.07.10	11-3 egitaritza-unitateko hiri-antolamenduaren plan bereziaren hasierako onarpena
2018/280	2018.07.10	Ordainketa ezberdinak (Iker Lojo eta Caritas)
2018/281	2018.07.10	Arrondo auzoa, 21.ean helbideratutako Ugalde txiki etxearen atzekaldeko fatxadaren olana ezartzeko obra baimena
2018/282	2018.07.10	Elbarrena auzoa, 15.ean helbideratutako Intxaurren etxea, 3.C etxebizitzan bainu ontzia kendu eta dutxa platera jartzeko
2018/283	2018.07.10	8673-DFL ibilgailuari baja (Olatz Guridi Urbieto)
2018/284	2018.07.12	Ordainketa ezberdinak (Irrisarri Land)
2018/285	2018.07.13	Ordainketa ezberdinak (Ataun Kirol Elkarte Pilotari eta M ^a Karmen Imaz Begiristain)
2018/286	2018.07.17	Gaikutza nazionalen funtzionarioei gordetako lanpostua hutsik aitorzea
2018/287	2018.07.19	Murkondo elkarteari "Zinema gau giroan" ekintza burutzeko baimena
2018/288	2018.07.19	Otsoak Dantza Taldeari uztailearen 21ean herri antzokia erabiltzeko baimena
2018/289	2018.07.19	Arantxa Ramos Zunzunegiri segregazio baimena
2018/290	2018.07.19	Herri bideen desbroze lanak egiteko esleipena
2018/291	2018.07.20	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Jonas De Barros Paixão eta familia)
2018/292	2018.07.23	Ordainketa ezberdinak (Iker Lojo eta Inazio Urdangarin)
2018/293	2018.07.24	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Monica Liliana Botiz)
2018/294	2018.07.26	Ordainketa ezberdinak (Oargi eta Ainara Imaz)
2018/295	2018.07.27	2018/07 zbkko zerrenda



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

2018/296	2018.07.27	LDL EL GHETTABI
2018/297	2018.07.27	LDL EL GHETTABI
2018/298	2018.07.27	LDL RAMIRO
2018/299	2018.07.27	LDL AGUSTIN G
2018/300	2018.07.27	LDL AGUSTIN G
2018/301	2018.07.27	LDL JAVIER IGLESIAS
2018/302	2018.07.27	LDL JAVIER IGLESIAS
2018/303	2018.07.27	Ordainketa ezberdinak (Iker Lojo - Udalekuetako gastuak)
2018/304	2018.08.01	Kontratazio zentrala. Higiene eta garbiketa-produktuen horniduraren espedientea
2018/305	2018.08.01	Prozedura Laburtuta 318-2018 – H - Abokatu eta prokuradorearen izendapena
2018/306	2018.08.02	Ataungo udalerria zeharkatzen duen herri-bidearen bi atal egokitzeko proiektua
2018/307	2018.08.03	Aiztondoko etxolatik Troskaetako etxolara zanga bat egiteko obra kontratua (Hirunitz Eraikuntzak)
2018/308	2018.08.03	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Souad Sobai eta familia)
2018/309	2018.08.06	Viesgo Energia, S.L. 2018ko 2. hiruhilabeteari dagokion tasaren likidazioa
2018/310	2018.08.06	EDP Comercializadora S.A.U.ri 2018ko 2.hiruhilabeteko tasaren dokumentazioa
2018/311	2018.08.06	Endesa Energia, S.A.U. 2018ko 2. hiruhilabeteari dagokion tasaren likidazioa
2018/312	2018.08.07	Alkatetzaren eginkizunak eskuordetzea.
2018/313	2018.08.07	Aitor Arratibeli baimena ematea "Agauntza" mendian erori diren pago egur batzuk egurretarako aprobetxamendua
2018/314	2018.08.07	Elbarrena 36.ean helbideratutako Mendiolape etxeko fatxadak berriztatzeko obra baimena
2018/315	2018.08.08	Troskaeta tabernan berriztatze lanak egiteko obra baimena
2018/316	2018.08.08	Joakin Goikoetxea Goikoetxeaundiari segregazio baimena
2018/317	2018.08.09	Eskola eta haurreskolako gelak margotzeko obraren onarpena
2018/318	2018.08.13	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Mihai Botiz)
2018/319	2018.08.13	Muntxoeta baserriko garajeko teilatua berritzeko obra baimena
2018/320	2018.08.17	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Julio Cesar Lezama Nuñez)
2018/321	2018.08.27	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Xiomara del Carmen Centeno Montalvan)
2018/322	2018.08.30	Ordainketa ezberdinak (Asier Rodriguez, Mielmari Jauregi, Iker Lojo eta Juliana Barandiaran)
2018/323	2018.08.31	2018/08 zbkko zerrenda
2018/324	2018.09.03	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Haizea Bravo eta familia)
2018/325	2018.09.03	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Oscar Canduela eta familia)
2018/326	2018.09.04	Elbarrena 65.enean helbideratutako Etxeberri eraikineko fatxadak berriztatzeko obra baimena
2018/327	2018.09.04	Pako Urrestarazuk aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezestea
2018/328	2018.09.06	9159-GJB ibilgailuari baja (Haritz Cid Aizpurua)
2018/329	2018.09.06	SS-0361-BH ibilgailuari baja (Anne Castañeda Duran)
2018/330	2018.09.07	Elbarrena auzoan helbideratutako Laskain Zelai etxadia osatzen duten eraikinetako fatxadetan berriztatze lanak
2018/331	2018.09.10	LDL SOBAI
2018/332	2018.09.10	LDL SOBAI
2018/333	2018.09.10	LDL RAMIRO
2018/334	2018.09.10	LDL AGUSTIN G
2018/335	2018.09.10	LDL AGUSTIN G



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

2018/336	2018.09.10	LDL EL GHETTABI
2018/337	2018.09.10	LDL EL GHETTABI
2018/338	2018.09.11	Murkondo Elkarteari irailaren 18an Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena hitzaldi baterako Garbiñe Etxanizen eskutik
2018/339	2018.09.12	Biztanleen erroldan alta hartzea (Jaione Echeveste Arrieta eta familia)
2018/340	2018.09.13	Egin diren obrak legeztatze dokumentazioa aurkeztu dezan Telefonica Moviles España, S.A.ri
2018/341	2018.09.17	Herrigintzari irailaren 25ean Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena bilera baterako
2018/342	2018.09.17	EH BILDURI urriaren 3an Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena bilera baterako
2018/343	2018.09.17	EH BILDURI urriaren 23an Udaleko pleno aretoa erabiltzeko baimena bilera baterako
2018/344	2018.09.17	Ataun Kirol Elkarteari pilota denboraldirako ordu erreserben onarpena (Astelehena eta asteazkena 16:00 - 20:00)
2018/345	2018.09.17	Amaia Auzmendi Asurabarrenari 2018/10/4tik 2019/06/27arte Auzoeta frontoia erreserbatzeko onarpena (ostegunetan)
2018/346	2018.09.20	Aitzarte aldea, 2.ean helbideratutako Insekanselus baserriko fatxadak berritzeko obra baimena
2018/347	2018.09.27	Ordainketa ezberdinak (Ataungo hiru auzoetako korrikaldia)
2018/348	2018.09.28	2018/08 zbkko zerrenda ordainketa
2018/349	2018.10.01	Joakin Goikoetxea Goikoetxeaundiari segregazio baimena
2018/350	2018.10.01	Laskain zelai etxadiko 1 F etxebizitzako fatxadan bi leiho berri irekitzeko obra baimena
2018/351	2018.10.01	Biztanleen udal erroldan alta hartzea (Sharon Abigail Godoy Deras)

HIRUGARREN PUNTUA:

AGITAXEK 2019 URTERAKO LUZATU DITUEN TAXIEN TARIFAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Urtero legez, AGITAX elkarteak Ataungo Udalari helarazi dio 2019rako taxien tarifak.

Laburbilduz, bere garaian Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 2/2000ko legea, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz kanpo kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duena (Taxien Legea). Lege horretan oinarrituz sortu zen, Lurralde antolaketa eta Sustapenerako Departamentuko diputatuaren foru arauaren bitartez, "Goierriko erregimen bereziko gunea" izendatua. Horretan, Alzaga, Arama, Ataun, Gaintza, Beasain, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Legorreta, Lazkao, Mutiloa, Ordizia, Olaberria, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain udalerriak daude.

2/2000 legeak garatzen duen erregelamenduan, 57.artikuluak eta hurrengoek diotenez, kotxe bidez garraio zerbitzua ematea, tarifa bati lotuta egongo da, eta eskumena duen organoak errebisatu eta onartu beharko du. Tarifa hori, loteslea eta derrigorrezkoa izango da, bai hiriko bai hiriarteko ibilbidetan. Era berean, garraiorako tarifak arlo guztiekin batera onartuko direla akordatu da. Tarifetan ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko, benetako kostu guztiak, sartu beharko dira: batetik amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arazoizko mozkinak emateko, eta bestetik zerbitzua edo jarduera egokia emateko. Horregatik udalerr horietan, tarifaren berrikuspina egin beharko da, era bereko tarifa mantentzeko. Bestalde, tarifak urtero berrikusiko dira, eta horretarako kostuen egituraren osagaietan izandako gorabehera izango dira kontuan, hau da, jardunaren oreka ekonomikoan eragin izan duten gorabeherak.

Goierriko eskualdean gaur egun indarrean dauden tarifak ondorengoak dira:



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

HIRI-BARRUKO 2018ko EGUNGO TARIFA					
TARIFA 1			TARIFA 2		
Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua
3,5141	1,1001	21,0129	3,5141	1,7546	33,0253

Aldiz, ondorengo tarifak proposatzen dira 2019rako (igoera % 2,3):

2019rako HIRI-BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA 1			TARIFA 2		
Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua
3,5949	1,1254	21,4962	3,5949	1,7949	33,7849

Eta besterik gabe bozketa eginda honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute: EH-Bilduko 4 zinegotziek eta ATAUN HERRIGINTZako 4 zinegotziak.

Eta gertatutakoaren arabera, **ERABAKI DA:**

Lehenengo.- Turismo Automobiletako Bidaiarien Hiriko eta Hiriarteko Garraio Publikoaren 2/200 Legea garatzen den Erregelamenduak ahalbidetzen dituen erregimen bereziko eremuen babesean, auto-taxi zerbitzuak emateko eskualdekatze-proiektuaren aldeko iritzia agertzea.

Bigarren.- 2019. urterako aurreikusitako auto-taxien tarifa onartzea, hala balegokio, Euskadiko Prezioen Batzordearen aurrean bideratu dadin.

Hona hemen, tarifen koadroa:

2019rako HIRI-BARRUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA 1			TARIFA 2		
Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua	Abiasaria	Egindako km-a	Itxaron ordua
3,5949	1,1254	21,4962	3,5949	1,7949	33,7849



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

LAUGARREN PUNTUA:

2017.EKITALDI EKONOMIKOKO KONTU OROKORRA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartuta, adierazi du 2017ko ekitaldi ekonomikoa itxita dagoela dagoeneko eta agian espedientea hobeto aztertzeko, gaia mahai gainean uztea komeni dela.

Amaia Auzmendi Asurabarrenak hitza hartuta, adierazi du informazioa eskatu dutela eta ez zaiela bidali eta bere taldeak behintzat ez duela onartuko.

Hori dela eta 2017.ekitaldi ekonomikoko kontu orokorra mahai gainean uztea erabaki zen datorren udalbatzarrean erabakitzeko. Baliteke horretako ezohiko pleno bat deitzea.

BOSGARREN PUNTUA:

SASIETA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak kontu eman du Sasieta Mankomunitateak igorritako gutunaren edukiaz: 6/2007 Foru Arauaren 11. Artikuluak galdatutakoari egokitzeko, Mankomunitateko Estatutuen aldaketa egin behar da. Aldaketa onartzea Udalbatzarrari dagokio, horren ondorioz honako proposamena eraman nahi da udalbatzarrera:

Deialdiarekin batera Sasieta Mankomunitatearen estatutuen aldaketa egin beharri buruzko informazioa banatu zaie zinegotziei.

Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako ohiko bileran Sasieta Mankomunitateko estatutuak aldatzeko proiektua onartu zuela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso ondoren.

KONTUAN HARTUTA:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gairik erakundeak arautzen dituen apirilaren 6/2007 Foru Arauaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udal Osoko Bilkurak gehiengo osoaren quorumarekin onartu behar dituztela estatutu berriak.

Espediente ikusita, bozketa egin da honako emaitzarekin:

Aldeko botoa eman dute EH Bilduko 4 zinegotziek eta ATAUN HERRIGINTZako 4 zinegotziak.

Bozketako emaitzaren arabera, ERABAKI DA:

LEHENA:

Sasieta Mankomunitateko Zuzendaritza Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako ohiko bileran onartutako estatutuak aldatzeko proiektuari onarpena ematea.

BIGARRENA:

Erabaki hau Sasieta Mankomunitateari jakinaraztea.



ATAUNGO UDALA

2018ko urriaren 4ko. Ohiko bilkura.

SEIGARREN PUNTUA:

KARMELE AIERBE MUXIKA ZINEGOTZIAREN KARGUARI UKO EGITEAREN BERRI EMATEA.

2018ko urriaren 1ean Udalean sarrera izan zuen Karmele Aierbe Muxika Udaleko Zinegotziaren idatzia. Bertan, 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetako emaitzen ondorioz eta 2015ko ekainaren 13z gero burutzen duen zinegotzi kargu izateari borondatez uko egiten ziola adierazten zen.

Kargu uzteak ez du eraginik izango Udalbatzarrak jakinaren gainean geratu arte, hau da, gaurko data arte.

Eta azaroaren 26ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren 9.4 artikuluan eta ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde Erregimen Orokorraren Legeko 182. artikulua xedatutakoa betetzeko, bertaratutakoek ahobatez, ERABAKI DUTE:

LEHENA: Karmele Aierbe Muxikak egin duen zinegotzi karguaren ukapenari buruzko adierazpenaren berri hartzea, herriaren alde egindako lanengatik eskerrak emanez.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Hauteskunde Batzorde Zentralari ematea, EH BILDU hautagaitzagatik, hauteskundeetara aurkeztu zen hurrengo zerrendakide (beste hautagai guztien errenuntzioa aurkeztu ondoren) Iraitz Goikoetxea Imazen egiaztagiria igorri dezan, karguaren jabetza har dezan.

ZAZPIGARRENA.

GALDERA ETA ESKAERAK.

Egoera honetan, 19:25 ordu direnean, Presidentziak batzarra amaitutzat jotzen du, akta hau egiten delarik, nik, idazkari honek, diodanez gertaturiko guztiaren islada zehatza dena. Fede ematen dut.

O.E.
Alkateak,
ASIER
RODRIGUEZ
ETXEBERRIA
72465843L
Asier Rodriguez Etxeberria,



Firmado digitalmente por ASIER RODRIGUEZ ETXEBERRIA
Nombre de reconocimiento (DN): cn=Asier Rodriguez Etxeberria, ou=ATAUNGO UDALA, o=ATAUNGO UDALA, email=asier@ataun.eus, serialNumber=+0100
DIRECCION PUBLICA DE EMPLEADO PUBLICO
cn=ASIER RODRIGUEZ ETXEBERRIA
sn=RODRIGUEZ ETXEBERRIA
email=asier@ataun.eus, serialNumber=+0100
Fecha: 2018.12.21 12:00:58 +01'00'

Udaleko Idazkari-Kontu-hartzaileak,

MARIA PILAR
GARMENDIA MIGUEL
- 72574128C

Maria Pilar Garmendia Miguel,

Firmado digitalmente por MARIA PILAR GARMENDIA MIGUEL - 72574128C
Nombre de reconocimiento (DN): cn=ATAUNGO UDALA, ou=ATAUNGO UDALA, o=CERTIFICADO ELECTRONICO DE EMPLEADO PUBLICO, email=IDAZKARI-KONTU-HARTZAILA, cn=MARIA PILAR GARMENDIA MIGUEL - 72574128C, givenName=MARIA PILAR, sn=GARMENDIA MIGUEL, serialNumber=+0100
Fecha: 2018.12.21 11:56:56 +01'00'